



II.- ESKUMENA.

Txosten hau nahitaezkoa da, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27.a) .2 artikuluan ezarritakoaren arabera; izan ere, agindu-proposamen bat da, kontratazio-mahai iraunkor bat edo kontratu anitzetarako eginkizunak izango dituen sortzeko.

III.- KONTRATAZIO-MAHAIEIEN ARAUBIDE JURIDIKOA.

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak (aurrerantzean, SPKL), zeinaren bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa egiten baita Espainiako ordenamendu juridikora, 326. artikuluan kontratazio-organoari laguntzeko kide anitzeko organo gisa arautzen ditu kontratazio-mahaiak. Lege horren azken xedapenetako lehenengoaren arabera, 326. artikulua ez da oinarritzko legeria.

Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuak 8. eta 9. artikuluetan arautzen ditu kontratazio-mahaiak. Lehenengoa, kide anitzeko organo horiek eratzeko eta kideak izendatzeko arauak ezartzeko; bigarrena, organo horien eginkizunen irismena zehazteko.

Oro har, 8. artikulua xedatzen duenez, prozedura irekietan, mugatuetan eta prozedura negoziatu publizitadedunetan, kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute, eta mahai horrek izango du eskaintzak baloratzeko eskumena. Gaineratu duenez, lizitazio-iragarkiak argitaratu beharrik ez duten prozedura negoziatuetan, kontratazio-organoak hautazkoa izango du kontratazio-mahaia eratzea. Kontratazio-organoari dagokio mahaiko kideak izendatzeko eskumena, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria izan ezik, bulego horretako titularrak izendatuko baitu.

Artikulu berean, 2. apartatuan, kontratazio-organoari laguntzeko organo horiek eratzeko arauak ezartzen dira, eta ezartzen da kontratazio-mahaiak presidente batek, idazkari-lanak egingo dituen pertsona batek eta, gutxienez, hiru kidek osatuko dituztela. Eta gaineratzen du bokalen artean nahitaez egon beharko direla kontratazio-organoaren aholkularitza juridikoa eta aholkularitza teknikoak, eta kontu-hartzaile bat edo kontratazio-organoaren ekonomia- eta aurrekontu-kontrolako eginkizuna esleituta duen pertsona bat, hurrenez hurren.



Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) ondasunak, azpiegitura teknologikoak eta zerbitzuak kontratatzen direnean, IKTen arloko eskumena duen zuzendaritzako pertsona batek parte hartu beharko du kontratazio-mahaian. Pertsona hori kontratazio-organo eskudunak izendatuko du, zuzendaritza horretako titularrak proposatuta.

Kontratazio-organoak hala eskatuz gero, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzako ordezkari batek ere parte hartu ahal izango du laguntza-organo horretan.

Kontratazio-mahaia osatzen duten pertsonak izendatzeko moduari dagokionez, aipatutako 8. artikulua 3. apartatuaren arabera, modu iraunkorrean edo espezifikoan egin daiteke, kontratu bakoitza adjudikatzeko. Eta ondoren zehazten du ezen, izendapen hori iraunkorra bada edo kontratu anitzetarako eginkizunak esleitzen bazaizkio, kontratazioaren alorrean eskumena duen saileko titularraren eta dagokion saileko titularraren edo erakundea atxikita dagoen saileko titularraren baterako agindu bidez ezarriko dela haren osaera, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dela.

Eta beste betekizun bat gehitzen du, ezartzen baitu osaera eta kideen identifikazioa kontratuaren administrazio-klausula partikularren agirian jasoko direla, eta dagokion kontratazio-organoaren kontratatzailearen profilean argitaratuko dela, kontratatze gaitasuna eta kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen direla egiaztatzen duen dokumentazioa kalifikatzeko egin behar duen bilera egin baino hamar egun lehenago, gutxienez.

IV.- AGINDU-PROIEKTUAREN JUSTIFIKAZIOA.

Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legea indarrean jartzeak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren izaera juridikoa aldatzea ekarri du, eta administrazio-izaerako erakunde autonomo izatetik zuzenbide pribatuko erakunde publiko izatera igaro da, orain Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publiko gisa eratuta (ikus lege horren bosgarren xedapen gehigarria).

Testuinguru horretan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Estatutuak onartzen dituen apirilaren 29ko 93/2025 Dekretuaren 30. artikulua ezartzen duenez, zuzenbide pribatuko ente publiko horren kontratazio-espedituek izapidetzeko, haren jardura egokituko da bai sektore publikoko kontratazio-araudiaren ondorioetarako administrazio publikotzat jotzen diren botere esleitzaleei aplikatu beharreko arauetara, bai Euskal Autonomia Erkidegoko legerian jasotako kontratazio-arauetara, bereziki Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko



116/2016 Dekretuan eta hura garatzeko araudian eta hura ordeztzen duen edozein arautan jasotakoetara.

Era berean, 93/2025 Dekretuak, 2025eko ekainaren 1ean indarrean jarri zenak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren egungo egitura organikoa eta funtzionala arautzen du, zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa. Zehazki, III. kapituluan, erakundearen egitura orokorra ezartzen da: gobernu-organoak eta kudeaketa-organoak bereizten dira, eta kontratazio-organoaren eginkizunak betetzeko organo eskudunak zehazten dira. Konfigurazio berri horrek desberdintasunak ditu orain arte indarrean egon diren estatutuetan jasotako egiturarekiko, azaroaren 30eko 329/2010 Dekretuaren eta maiatzaren 22ko 82/2012 Dekretuaren arabera.

Ondorioz, Enpleguari buruzko abenduaren 21eko 15/2023 Legeak izaera juridikoan izandako aldaketaren eta apirilaren 29ko 93/2025 Dekretuaren bidez onartutako estatutu-eguneratzearen ondorioz, ezinbestekoa da xedapen berri bat onartzea, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoaren kontratazio-organoari lagundu behar dion kontratazio-mahaiaren osaera sortu eta arautzeko.

V.- AGINDU-PROIEKTUA.

Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordearen txostena eskatzen duen agindu-proiektuak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren kontratazio-mahaia sortu nahi du modu iraunkorren, eta haren osaera arautu.

Agindu-proiektuak azalpen-zati bat, 2 artikulua, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ditu. Proiektu horrek errespetatu egiten ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailearen 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.3 artikuluan eskatzen diren arau-maila eta kontratazio-mahai iraunkorretako kideak edo kontratu anitzetarako eginkizunak esleituta dituztenak izendatzeko organo eskudunak.

Organoen adierazpena argiagoa izan dadin, alde batetik, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailearen 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.3 artikulua bigarren paragrafoaren idazkerara hobeto egokitzeke, Aginduaren izenburua hau izatea proposatzen da: «Agindua, Ogasun eta Finantzetako



sailburuarena eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuarena, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren kontratazio-mahaia sortu eta haren osaera arautzen duena».

Proiektu horren 1. artikuluan ezartzen denez, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoa zuzenbide pribatuko ente publikoaren kontratazio-organoek kontratazio-mahai baten laguntza izango dute prozedura irekietan, mugatuetan eta prozedura negoziatu publizatedunetan. Mahai horrek Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 9. artikuluko eginkizunak beteko ditu.

Osaerari dagokionez, 1.1 artikulua a) letraren lehenengo paragrafoan, Enpresen eta Ekintzaitzaren zuzendariari esleitzen zaio Kontratazio Mahaiaren lehendakaritza. Kargua hutsik badago, kanpoan edo gaixorik badago edo legezko beste arrazoiren bat gertatzen bada, Lanbideren estatutuetan zuzendaritza exekutiboentzat ezarritako arauen arabera ordeztuko da. Gomendatzen da, argiagoa izan dadin, zuzendaritza exekutiboan aipamena aldatzea, 15. 93/2025 Dekretua, apirilaren 29koa, Lanbideren estatutuak onartzen dituen, 2025eko uztailaren 16ko EHAAn argitaratutako zuzenketaren arabera. Hau da, "zuzendaritza exekutiboan titularren postuak hutsik daudenean edo titularrak kanpoan edo gaixorik daudenean, horiei esleitutako eginkizunak, egoera hori gertatu baino lehen eskuordetu ez badira, administrazio-ahalak esleituta dituzten zuzendariak beteko dituzte, estatutu hauetan agertzen diren hurrenkeraren arabera, eta lehenengo agertzen dena Zuzendaritza Nagusiaren titularrak beteko du".

Mahaikideei dagokienez, 1. artikulua b) letraren lehenengo eta bigarren paragrafoetan ezartzen denez, kontratazioa eskatu duen zuzendaritzaren ordezkari bat egongo da, kontratazio-organoak izendatua, eta aholkularitza teknikoa emango dio kontratazio-organoari; beste kide bat Ekonomia eta Aurrekontu Zerbitzuaren arduraduna izango da.

Era berean, agindu-proiektuaren 1. artikulua b) letraren hirugarren apartatuan Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkaria aipatzen da, zeina bulego horren titularrak izendatuko baitu. Horri dagokionez, adierazi behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testuategina onartzen duen urriaren 19ko 2/2017 Legegintzako Dekretuaren 21.1 artikulua arabera, zuzenbide pribatuko erakunde publikoak ez daude Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egiten duen ekonomia- eta zerga-kontrolaren mende. Ondorioz, 116/2016 Dekretuaren 8.2 artikuluan egiten den aipamenak, zuzenbide pribatuko erakunde publikoen kasuan, ez du aipatzen «kontu-hartzaile bat», baizik eta «ekonomia- eta aurrekontu-kontrolako eginkizuna esleituta duen pertsona bat», hau da,



kontratazio-organoko kide bat, hala nola «Ekonomia eta Aurrekontu Zerbitzuko arduraduna», zeina jada aipatzen baita agindu-proiektuan kontratazio-mahaiko kide gisa. Beraz, agindu-proiektuaren idazketa aldatu behar da, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren ordezkariari egiten zaion erreferentzia erakundearen ekonomia- eta aurrekontu-kontrolako eginkizuna esleituta duen pertsona batekin ordeztuz.

Halaber, agindu-proiektuaren 1. artikulua b) letraren laugarren apartatuan, idazketa hau proposatzen da, indarrean dagoen araudira egokitzeko: «Informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloan eskumena duen zuzendaritzaren ordezkari bat, haren titularrak proposatua eta kontratazio-organok izendatua, zeinak IKT ondasun, azpiegitura teknologiko eta zerbitzuen kontratazioari buruzko espedienteetan jardungo baitu».

Aukeran, eta kontratazio-organok eskatuta, Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren ordezkari bat sartu ahal izango da Kontratazio Mahaian. Pertsona hori zuzendaritza horren titularrak proposatuko du, eta kontratazio-organok izendatuko du.

1. artikuluko c) letran, idazkari-aholkulari juridikoaren figura jasotzen da: Zuzenbideko gradu-edo lizentzia-titulua duen teknikari bat. Zerbitzu Juridikoaren kontratazio-arloari atxikita egongo da, eta kontratazio-organok izendatuko du. Kontratazio-organok aholkularitza juridikoa emango dio, eta kontratazio-mahaiaren idazkari-lanak egingo ditu. Hitza eta botoa izango ditu.

2. artikulua mahaiko kideak ordezteko sistema arautzen du, eta uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 8.1 artikuluan xedatutakora egokitzen da (116/2016 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzekoa).

Agindu-proiektuaren artikulua berri bat (3. artikulua) sartzea proposatzen da, indarrean dagoen araudira egokitzeko: «Nolanahi ere, osaera eta kideen identifikazioa kontratuaren administrazio-klausula partikularren agirian sartuko dira, eta kontratatzailearen profileen argitaratuko da, kontratatzeko gaitasuna eta kaudimen- edo sailkapen-baldintzak betetzen direla egiaztatzen duten agiriak kalifikatzeko egin behar duen bilera baino hamar egun lehenago, gutxienez».

Xedapen iragankorrak kontratazio-mahaiaren osaera mantentzen du, 2020ko azaroaren 26ko Aginduan arautzen den bezala, eta mahai horretako kide izango dira lizitazioa argitaratzen den unean indarrean dagoen izendapen-ebazpenaren eta araudiaren arabera izendatutako



pertsonak. Horrela, xedapen hau indarrean jarri aurretik Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman hasi eta argitaratutako lizitazioa duten kontratazio-prozedurek jarraitu ahal izango dute.

Agindu-proiektuaren xedapen indargabetzailean ezartzen denez, indargabetuta geratzen da bigarren lehendakariorde eta Lan eta Enpleguko sailburuaren eta Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2020ko azaroaren 26ko Aginduaren 3. artikulua, zeinaren bidez ezartzen baita Lan eta Enplegu Sailaren, Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea erakunde autonomoaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua erakunde autonomoaren kontratazio-mahaien osaera, ondorioak izanik Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarentzat, zuzenbide pribatuko ente publiko gisa duen izaera juridiko berriaren ondorioz.

Azkenik, azken xedapenak ezartzen du arau hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dela indarrean.

Azaldutakoagatik guztiagatik, aipatutako agindu-proiektuaren ALDEKO TXOSTENA ematen da, proiektuaren edukia txosten honetan emandako gidalerroetara eta gomendioetara egokitu ondoren.